

Aurrera, sasi guztien gainera



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
ZINEGOTZIA

Kuxkuxean ibili naiz Twitter Analytics-en, joandako urtebeteen txio-katutako burutazioen artean. Hamabi hilabeteotan, nabarmendutako txioen artean hilerio agertu da bateren bat euskaraz bizitzen saiatzeagatik euskaldunok pairatzen ditugun zailtasunei buruzkoa (tira, martxoan ez, Ategorrietako etxe kaleratzea eta Eneko Goiak areagotu duen etxebizitza arazoa izan ziren izarrak). Kasu batean izan ezik, txioetan aipatutako zailtasunen eragileak EAEko erakundeak izan dira: Epaitegi Nagusia (2), saltegiak (4), Donostiako Udala (6) eta Eusko Jaurlaritza (7; Osakidetza, Ertzaintza, Hezkuntza, EITB). Hau da, eta txio horiek balio bezate erakusgarritzat, euskaltzale ugari sentitzen duela geure erakundeak direla EAEko euskaldunok euskaraz bizitzeko izaten ditugun oztopo nagusien eragile nagusienetakoak.

Horregatik, harrigarria iruditu zitzaidan Euskara Aurrera ekimenak, mobilizazioaren beharra argudiatzeko azaldutako euskaldunonganako zapalkuntzaren adibideen artean, nagusiki, Frantziako Estatuaren, Nafarroako erakundearen eta EAEko Epaitegi Nagusiaren bazterkeria eta jazarpenak aipatu izana, eta EAEko erakundeak, ordea, zeharka

baizik ez aipatzea; eta argi gera bedi ez naizela ekimen hori zalantzan jartzen ari, behar-beharrezkoa iruditzen baitzait ildo aldarrikatzailea berreskuratzea, eta, batez ere, gazteen artean kontzientziario euskaltzale erradikala eragitea. Uler dezaket erakarri nahi izatea euskarak aurrera egitea nahi dugun guztiak, eta pentsatzea gauzak gordinerik esanda, agian, zenbait ez zirela eroso sentituko.

Baina euskararen egungo egoera EAEen ere bada berrogei urteotako erabaki politikoaren, asmatzearen eta akatsen ondorio. Noizbait adierazi izan dut uler dezakedala instituzionalizazioaren lehen urteetan motelago joan izana euskararen berreskurapenean; ez nator bat, ordea, azken urteotan gertatzen ari den moteltze programatuarekin. Inoizko euskaldun kopuru handiena dugularik, ezin da ulertu nola araudiak ez duen garapen eraginkorragoa izaten, nola erakundeek ez duten garaiarekin bat egiten, nola euskaldunon eskubideen bermeak jarraitzen duen etorkizuneko gai izaten. Euskarak eta euskaldunok aurrera egin behar dugu, eta egin egingo dugu, sasitza bihurtuta dauden oztopoen eta aitzakiak eta hitz hutsak eskaintzen dituzten arduradun politikoaren gainera igaro behar badugu ere. ●

Gure protesiak



**CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA**

Etxe bat husten duzunean beti gertatzen dira kantak; etxetik ateratzea aholkatzen dizuten lagunak zein etxearekin geratzea dela onena esaten dizutenak; etxebizitza-agentzietako iragarkiak; medikueterako hitzorduak; desagertutako hizkuntzak. Norbait maite duzunean, harekin bakarrik erabiltzen duzun hizkuntza sortzen duzu. Lengoia hori hil egiten da harremana eten egiten denean. Gure bizia, gure puskak, berriz ikusiko ez dugun jendearengan uzten ditugu. Horregatik bizitzea da maite gaituztenak galtzea eta berriz bilatzea, labur esanda. Izan

ere, maite gaituztenean sentitzen gara indartsuen, indartsu gaudenean baino gehiago, nahi baduzu. Baina euria ustekabearen etortzen da, bizitzako pertsona interesgarriak bezala. Eta ezin da zer egin euria eteteko. Berdin gisan, ezin da ezer egin abandonatuko zaituela erabaki duena geldiarazteko. Eta beharbada erakartzen gaitu abandonatuko gaituenak, edo horretarako asmoa duenak; baina gurekin geratzen direnak, erabakita edo ez, horiek dira gure protesiak: hazkura ematen digute, mina ere bai tarteka, baina horiek gabe ezingo genuke bizi. ●